

*Emakumea lepoz,
emakumea biluzik,
emakumea harrigarri.*

Beste izenburu bat aukeran: “Arnas etena”


Jokin Oregi Iñurrieta

Gela handi bat, itsasargi bateko gela nagusia. Itxura bitxia du, artista plastiko baten lantoki bihurtu da, artelanak-eta egiteko tresneria nonahi pilatzen da, batzuk orden jakin batean, beste batzuk modu kaotikoan sakabanatuta. Mota anitzetakoak dira artelanok: instalaziotzat har litekeen lana, eskultura batzuk, argazkiak... Guztiek dute, ordea, gauza bera oinarrian: neska jakin baten irudia (dela haren bizkar biluzia, dela haren begiekin egindako eskultura bat...). Pantaila erraldoi bat ere badago eskuin aldeko horman. Gontzal izara batez estalitako sofan eserita dago, burumakur. Begiak zabal-zabalik ditu. Gontzal, berrogeita hamar urte inguruko artista da; bakarrik bizi da eraikin honetan. Hogeita hamabost urte inguruko polizia, itsasargira ematen duen eskailetatik behera dator.

Polizia: Polita lekua. Itsaso zakarra dago. Atsegin dut itsasoa haserre dagoenean, lurra bereganatzen tematzen denean. Piztia bat ematen du, kaiolatik ihes egin nahian. (...) Egunen baten hala gertatuko dela esan dute, metro batzuk gora egingo duela... Entzungo zenuen... jakina, gizon informatua ematen duzu zuk... kostaldeko hainbat herri urak hartuko ditu... Hemen ez duzu arrisku hori. Zenbat metro daude itsasargitik itsasora?

Gontzal: (...)

Polizia: Nik ez dut uste hala gertatuko denik. Gu beldurtzeko asmatzen dituzte halakoak. Beldurraren menpe dagoen jendeak ez du piperrik balio, edozer egin liteke haiekin. Beldurra da goikoek erabiltzen duten armarik eraginkorrena. Putasemeak! Zuk, ordea, ez duzu inongo beldurrik, hemen bizi zara, itsasargi abandonatu batean, bakarrik... Zergatik hona etorri?



Gontzal: Zerbaiten bila etorri nintzen.

Polizia: Hona? Zer arraio aurki liteke honelako leku batean?

Gontzal: Zerorrek esan duzu: bakardadea.

Polizia: (...) Bakardadea?

Gontzal: Bakardadea bitarteko bat da...

Polizia: (...)

Gontzal: ...ganorazko hausnarketarako. Ezinbestekoa. Zerbait oker dabilenean etenaldi bat egin eta bertan geratu beharra dago.

Polizia: Bai, gizona: azkarregi bizi gara, presaka beti. Baina, zer egingo diogu ba? Ni bezalakook ezin dugu geratu. (*Eztena zorrotz:*) Dirua eduki behar da atsedena hartu ahal izateko.

Gontzal: Nik ez dut atsedetik aipatu.

Polizia: (...) Egia borobila. Emazteak eta alabak ez zizuten nahikoa denbora librerik uzten, ala?

Gontzal zur eta lur geratu da Poliziak emaztea eta alaba aipatu dituelako.

Polizia: (*Sortu duen harriduraz jabetuta*) Zenbait galdera egin ditut hona etorri aurretik. Gure lanbidea horrelakoxea da, galderak egiten pasatzen dugu bizitza erdia.

Gontzal: Polizia zinela uste nuen, ez filosofoa.

Poliziak irri egiten du. Gontzal zutitu eta garagardo botila bat hartu du mahaitxo baten gainetik. Poliziari eskaini dio. Honek uko egin dio buruarekin ezetz esanda. Gontzalek beretzat hartu du botila, eta tragoa eman dio. Poliziak aldamenean duen artelan bat hartu du esku artean.

Polizia: (...) Halere, aspertu egin zinen bakarrik egoteaz.

Gontzal: Kontuz horrekin!

Gontzalek esku artetik kendu eta dagokion tokian utzi du artelana berriro ere.

Gontzal: Denbora galtzen ari zara. Ez dakit non dagoen.

Polizia: Jakina. Esan didazu lehen ere, baina zera jakin nahi dut: nolako harremana duzun neska horrekin... Hona etorri aurretik ezagutu zenuen?

Gontzal: Ez.

Polizia: Beraz, beste arrazoi bategatik banatu zineten emaztea eta biok.

Gontzal: (...)

Polizia: Zer zegoen oker?

Gontzal: Nola?

Polizia: Zerorrek esan duzu, oraintxe esan duzu, zerbait oker zegoela eta denbora behar zenuela pentsatzeko.

Gontzal: (...) Zer zegoen oker jakin nahi duzu. Ondo da, esango dizut. Esan egingo dizut. (...) Orain urte bi eskas, egoerak, nire karrerak, okerrera egin zuen erabat. Ez zen apenas nire lanik saltzen, haiei buruz gero eta gutxiago hitz egiten zen aldizkarietan, balizko hainbat kontratu bertan behera geratu ziren, utzi egin ninduen agenteak, hondoa jo nuela esaten zuten askok. Eta nik ederki nekien arrazoi zutela... Begira, hemen duzu duela urtebete eskas egunkarian agertu zena.

Bazter batetik ateratako berripaper zati zikin bat eman dio eskura Poliziari.

Gontzal: “Sormenerako ez-gauza. Gontzal Urritiaren azken erakusketak nabarmen utzi du aspaldi eman zituela artistak bere onenak. Nola harrituko gara, bada, orain sei urte egindako piezak klonatu eta haiek berriro aurkeztu badizkigu? Gauza bat da norbere estiloari leial izatea, eta bestea, estilorik ezari leial jarraitzea...”

Polizia: Buruz ikasi duzu!

Gontzal: (...) Neronek idatzi nuen.

Polizia: Benetan? (*Paperari so*) Baina hemen...

Gontzal: Bakarne Izuetak izenpetzen du, bai, ez nuen izen egokiagorik asmatu. Egunkariko zuzendaria laguna dut, ez zegoen oso konforme testua argitaratzearekin, baina azkenean konbentzitu nuen. Nire buruaren kritikorik zorrotzena ni neu naizela erakutsi nahi nuen. Hori erakutsi nahi izan nion nire buruari. Eta sinetsiezadazu, kritika horrek berebiziko

eragina izan zuen nigan, irakurri ondoren erabaki nuen-eta dena utzi eta hona etortzea.

Polizia: Eta orain, berriro ere arrakasta lortu duzu, lehen bezain ospetsu zara. Lanean hasi zara buru belarri: azken bi hilabeteotan hiru erakusketa egin dituzu zein baino zein arrakastatsuagoak. Eta antza denez, neska horrek izan du eraginik arrakasta horretan...Zer idatziko luke orain kritikari horrek, Bakarne...?

Gontzal: Bakarne Izuetak? Ez dakit. Agian esango luke sugeek egiten duten era berean Gontzal Urritiak azala aldatu duela, edo artista gehienek ez bezala, bere burua erail duela berriro ere jaio ahal izateko. Horixe esan beharko luke, bai: bere buruaz beste egin duela, arrakasta garestiegia delako. Dena eman duela hura lortzearren, horixe idatzi beharko luke. Eman zezakeena baino gehiago eman duela.

Polizia: Nonbait entzun nuen, arrakasta maila, hura lortzeko hartutako arriskuak baldintzatzen duela.

Gontzal: (*Eztena zorrotz*) Gauza bera esan liteke porrotaz, ez duzu uste? Hura jasateko hartutako arriskuak baldintzatzen du porrota. Beste garagardo bat hartuko dut, nahi duzu zuk beste bat?

Polizia: Ez, eskerrik asko.

Gontzal badoa beste botila baten bila. Poliziak arte pieza handi bati erreparatu dio.



Gontzal *garagardoa eskuan duela itzuli da.*

Polizia: Nork sartu ahal du horrelako bat etxean?

Gontzal: Hori ez da inoren etxean sartuko, enkargu bat da. Oraindik amaitu gabe dago, enpresa bateko sarreran jarriko dute. Garai batean txakurra jartzen zuten enpresetako sarreratan lapurrak uxatzeko. Orain beste estrategia batzuk erabiltzen dituzte, sotilagoak.

Polizia: (*Irri eginez*) Ona, oso ona. Dena den, artelan batek lapurrak uxatu baino, erakarri egingo ditu, ezta? Zenbat balio dezake halako pieza batek?

Gontzal: Halako batek ala honako honek?

Polizia: Sei mila euro?

Gontzal: Niri buruzko informazio gehiago zenuela uste nuen.

Polizia: Zortzi mila euro?

Gontzal: Hogeita bi mila.

Polizia: (*Txistu*) Horrek ez ditu ez, lapurrak uxatuko.

Gontzal: Baina, zerorrek esan duzu, nork sartu ahal du horrelako bat etxean?

Polizia: Lau zatitan erdibitu eta listo!

Gontzal: (*Irribarre iluna*) Ez da ideia txarra. Nondik erdibituko zenuke?

Polizia: Ez dakit ba... Inporta du batere?

Gontzal: (...)

Polizia: (*Artelanetan hainbeste errepikatzen den neskaren irudi bati begira*) Zer egingo duzu orain bera gabe?

Gontzal: (...) Ez dakit.

Polizia: Esango didazu nola ezagutu zenuen?

Gontzal: Ustekabea izan zen.

Ordenadorera hurbildu da.

Gontzal: “Enter” zanpatu nuen.

Hala egiten du eta bat-batean Mayi agertzen da pantailan, kamerari begira, eder bezain sentsual. Web-cam erotiko horietako batean egiten du lan Mayik.

Gontzal: Atzeko horman eskegita zeukan margolanari erreparatu nion, maite dut Gustav Klimt... Ondoren bere begiei erreparatu nien, neska ederra da... Baina, harrigarria bada ere, ez nuen zorionerako betarik izan, sentimendu ilun batek harrapatu ninduen, bihotzean ziztada zorrotza, bihozkada bat, izu-ikara sentitu nuen, irudia ezabatu egin zitekeela pentsatu nuen, sistema ahulegi batek sostengatzen zuela horren neska polita eta irudia bat-batean desegingo zela irudikatu nuen. Ez nuen zirkinik egin. Arnasa hartzeari ere utzi egin niola uste dut. Bai, horixe sentitu nuen. Gogoan dut.

Polizia: Neska ederra da benetan. Titiak txikiegi, akaso.

Gontzal: Argazki kamera hartu eta argazkiak atera nizkion... irudi bati. Ez dakit zenbat denbora eman nuen argazkiak ateratzen.

Gontzalek argazkiak ateratzearekin batera atzeko pantailan agertzen dira.

Gontzal: Zortzi hilabete neramatzan ezer sortu gabe, artelan bakarra egiteke, zirriborro bakan bat ere marraztu gabe, kamera eskuetan hartu gabe. Eta segundo apur batzuen buruan, dagoeneko lanean ari nintzen. Neska hura ez zen edozein neska, ez; unibertsoaren magalera berriro eramango ninduen gidaria zen. (...) Orduan ez nintzen horretaz jabetu, geroago ohartu nintzen.

Gontzalek argazkia egin dio derrepente Poliziari.

Polizia: Zertan ari zara?!

Gontzal: “Polizia artelan talde arriskutsu bat atxilotzen”, hurrengo erakusketan jarriko dut.

Poliziak kamera hartu dio.

Gontzal: (*Kexu*) Baina... Ezabatu egin duzu?

Polizia: Hau ez da txantxetako kontua, jauna, hilketa bati buruz ari gara.

Poliziak kamera itzuli dio Gontzali. Gontzalek keinu ilun bat marraztu du ezpain muturrean eta kamera bere tokian utzi du.

Mayi (web-kamerari begira): ¿No te apetece hablar? (...) Estás ahí, ¿verdad? (...) ¿Por qué yo? ¿Por qué me has elegido a mí?

Polizia: Zergatik bera? Neska ugari dago halako lekuetan, eta polit askoak gainera...

Gontzal: Hain babesgabe zirudien... Ez, inola ere ez: ez zen gainontzekoak bezalakoa, umezurtz zegoen. Hura ez zen bere tokia.

Polizia: Hura babesteko premia sentitu zenuen.

Gontzal: Bai... hasieran bai.

Polizia: (...) Zure alaba izan zitekeen.

Gontzal: Horixe bera uste dut nik.

Gontzalek bigarren garagardo botila edan du.

Mayi: Te gusta observar, ¿a que sí? (...) A mí también me gusta mirar a la gente... No, no es verdad, no me gusta mirarla. Ni siquiera me importa no verte la cara, ¿sabes? (...) ¿No vas a decirme nada? ¿Tengo que adivinarlo? ¿Se trata de eso? ¿Tengo que adivinar quién eres? (...) Si no me das una pista no voy a jugar. (...) ¿No me vas a decir nada? Está bien, lo haré sola... ¡Ya lo tengo! Eres... ¡eres un grandísimo mirón hijo de puta! Popatik nazkante alu hori!!

Mayik konexioa eten behar du, baina Gontzalek azkar asko jarri du mikrofono inalanbrikoa.

Gontzal: Itxaron!

Mayik ez du konexioa eten.

Gontzal: Itxaron pixka bat. Barkatu...Mikroa da, aparatu zikin hau da, ez dabil ondo. Berria erosi behar dut. Horixe egingo dut, bai, berria erosi eta akabo arazoa.

Mayik irri egiten du, lasaiago.

Mayi: Orduan ez zara putaseme bat, ezta?


Gontzal: Tira, norbaitentzat hala izango naiz. Baina “nazkante alua”, ez, inola ere ez.

Mayi: Sekula ez zait halakorik gertatu, badakizu? Ez zait gustatu.

Gontzal: Hala iruditu zait, bai. Halere, egoera gordinagoak biziko zenituen zure lan horretan, ala?

Mayi: (*Lizun*) Zer darabilzu burutxo horretan?

Gontzalek bat-batean konexioa eten du eta Mayiren irudia desagertu egin da. Badoa beste garagardo baten bila.



Polizia: Hori izan zen dena?

Gontzal: Bai.

Polizia: Halako neska polita zuk zer aginduko zain eta ezer ez? Ez zenion eskatu, ez dakit... adibidez, bere bulartxo gazteak erakusteko? Ez zenion eskatu lau hankatan jartzeko, edo istorio lizunen bat kontatzeko? (...) Lehen aldia zen halako batean sartzen zinela?

Gontzal: Bai.

Polizia: Baina ez zen azkena izan.

Gontzal hirugarren garagardo botila eskuan duela itzuli da.

Gontzal: Ez. Egunak egin nituen Mayiren... neska horren irudia ahaztu ezinda. Lehen aldi hartan ateratako argazkiekin egindako pieza bat bukatu nuenean... Bazuen zerbait neska hark... ezin zer ote zen antzeman, baina, bazuen zerbait, bai... Ariman zuen, ezkutuan, gordeta, ariman gordeta. Berriro jo nuen web helbide hartara.

Polizia: Zergatik erreparatu hori? Zakila bero-bero zenuen, ze inporta neska horrek? Horixe da euren lana, horrexegatik ordaintzen zaie. Gainera, zuk ez duzu diru arazorik... Ez da lan txarra, ez dute larrutan egin behar, ez dute bestearen lerdea edo hazia irentsi behar... Ez dute haren kiratsa edo azal iharra jasan beharrik... Eta jakina, ez dute gure “ahuleziak” irribarre goxo bezain faltsu batekin barkatu beharrik.

Gontzalek berriro sakatu du ordenadoreko tekletako bat eta Mayi agertu da.

Mayi: Kaixo aspaldiko, mikrofono berria erosi duzu jada?

Gontzal: Bai, kitto arazoa.

Mayi: Zer gertatu zitzaizun lehengoan horren azkar alde egiteko?

Gontzal: (...)

Mayi: Pozten naiz berriro ere “bisitan” etorri zarela.

Gontzal: Benetan?

Polizia: Emakume horiek edozer esateko prest daude, minutuek aurrera egin dezaten. Puta zikinak!!

Gontzal: Puta bat iruditzen zaizu benetan?

Polizia: Denak dira berdinak.

Gontzal: Ez dut uste Mayi puta bat denik.

Polizia: A ez, nolakoa da ba?

Gontzal: Oraindik ez dakit... Jakiteko irrikaz nago.

Polizia: Tira, egin duena egin ondoren, berezi samarra dela esango nuke.

Mayi: Lehengo egunean gezurra esan nizun. Esan nizun ez zitzaidala zure aurpegirik ez ikustea ardura. Gezurra da. Seguru zuk ere baduzula web-kamera. Zergatik ez duzu pizten?

Gontzal: Hobe ez.

Mayi: Lotsatu egiten zara?

Gontzal: Jakina baietz.

Mayi: *(Irrifar)* Ongi da. Beraz, zu zara nagusia.

Polizia: Ño, neska horrek ederki egiten du lan.

Gontzal: Zein da zure benetako izena?

Mayi: Junne, hor jartzen du.

Gontzal: Benetan?

Mayi: Bai, gizona... Eta zurea, zein da zure izena?

Gontzal: “Nagusi”, zerorrek asmatu duzu.

Mayi: Egia da. Eta, zer nahi duzu ba, “Nagusi”?

Gontzal: (...)

Mayi: Ez dakizu zer nahi duzun. Hori da gertatzen zaizuna, ezta?

Gontzal: Baliteke. Oso neska argia zara.

Mayi: Nire itxuragatik da? Ez naiz nahikoa sentsuala?

Gontzal: (...)

Mayi: Aizu, txat hauetan inpotentzia arazoak ez dira arazo, bazenekien? Inpotentzia arazo hori buruan ez baduzu, behintzat, jakina.

Gontzal: Buruko arazoa da, zalantzarik gabe.

Mayi: A bai? Ea egia den.

Mayik musika jartzen du bera dagoen gelan eta sentsualitatea puripurian duen pieza dantzatzen hasten da. Zeinen erakargarria den eskuzabal erakutsi ondoren, kamerara hurbildu da.

Mayi: Jarraituko dut?

Gontzal: Zuk erosi zenuen Gustav Klimten margoa, ala opari bat da?

Mayi: Nola? Norena esan duzu dela?

Gontzal: Zenbat urte dituzu? Hori ere ez didazu esango?

Mayi: Bihar beteko ditut 23, eta etzi 24, eta etzidamu 25. Lanbide honetan urteak azkar igarotzen dira, joder! Zer ostia nahi duzu “Nagusi”? Behingoz jakin nahiko nuke, benetan. Esango didazu, “Nagusi”?

Gontzal: Baduzu leihorik, zure gela horretan?

Mayi: Baina ze...?

Gontzal: Baduzu leihorik?

Mayi: Bai, badago bat.

Gontzal: Irekiko duzu?

Mayi: (...)

Gontzal: Nor da “Nagusia”? Ireki, mesedez.

Mayik irribarre egin eta amore eman du aldi berean: joan da leihoa irekitzera. Derrepente, gela eraldatu egin da argi berriaren poderioz. Mayik, kamera aurrera etorri delarik, beste bat ematen du, argiaren eraginez.

Gontzal: Orain kendu gelako argi elektrikoa.

Mayik bete du agindutakoa.

Gontzal: Geratu atzeko paretan, ate ondoan.

Mayik bete du agindutakoa.

Gontzal: Kendu... kendu orain arropak.

Mayik berriro ere bete du agindutakoa. Gontzalek, bere ordenadoretik, kolorea eta brilloa manipulatu ditu. Pozarren dago, neskaren irudia erabat sofistikatu delako, irudi artisko batetik oso gertu dago pantailan ikusten duguna. Bat-batean, Mayik zerbait entzun du bere ate ostean. Korrika batean hasi da arropak batzen.

Gontzal: Zer gertatzen da?

Mayi: Berandutu egin zait...

Gontzal: Baina...

Mayi: Saiatu bihar ordu berean konektatzen, bale?

Mayik konexioa eten du eta pantailatik desagertu da.

Polizia: Zergatik egin zuen hori?

Gontzal: Norbait etxean sartzen entzun zuelako.

Polizia: Bere mutil-laguna.

Gontzal: Baliteke.

Polizia: Nor bestela? Etxe horretan biak bakarrik bizi ziren.

Gontzal: (...) Tira, ikusten duzunez, ezin diezazuket kontu honetan lagundu. Ez dut neska hori ezagutzen. Seguru zaudete bera izan dela? Harrigarria iruditzen zait.

Polizia: Zergatik iruditzen zaizu horren harrigarri? Oraintxe esan duzu ez duzula ezagutzen. Ez baduzu ezagutzen... nola harritu zaitzake?

Gontzal: Gure amonak bere ohera eraman gintuen behin iloba guztiak, inoiz ez ahaztu beharreko ikasgai bat azaltzeko. Hala esan zigun: ez sekula ahaztu gaur esango dizuedana. Gizakiok itsasoaren ezpal berekoak gara. Itsasoak bere sumindura baretu beharra du noizean behin, horrexegatik irensten ditu marinel gaixoak. Gizakiok ere, sumindura berbera daramagu barru barruan, eta horrexegatik, aldian aldiko borrero bihurtzen gara. Eta ez

dago ezer hori aldatuko duenik. (...) Baina, halere, gaur egun ere, harritu egiten nau pertsona batek lagun hurkoa akabatzeak. Horrelakoxea naiz ni... Arazo bat al da?

Polizia: Ez, hori ez da arazoa. Zure arazoa bestelakoa da, gezurretan ari zarela.

Gontzal: Zer...?

Polizia: Eta gezurrek urduri jartzen nautela ere arazo izan daiteke, batez ere zuretzat. Ez duzula neska ezagutzen esan duzu, eta hori ez da egia. (*Sakelatik orritxo bat atereaz*) Begira, hementxe apuntatu dut: azken bost hilabeteotan 120 hartu-eman izan duzue interneten bidez. Batzuk laburrak, gehienak ordubetetik gorakoak, eta badira hiru ordotara iritsi direnak ere. Makina bat bikotek ezkontza bizitza osoan baino askoz ordu gehiago eman duzue elkarrekin.

Gontzal: Lan egiteko baliatzen nituen saioak.

Polizia: Zure modelo pribatua bihurtu zen.

Gontzal: (...) Sekula ez dut horrenbeste lan egin. Gauetan esnatzen naiz, pieza bati azken ukitua emateko, edo goitik behera aldatzeko...

Polizia: Zergatik baina, lan egiteko premia hori? Zeure familiaren ondasunak ez dira nolanhikoak... Noiz hasi zen zure aita itsasontziak egiten?

Gontzal: (...)

Polizia: Nire aitak hamalau ordu ematen zituen lanean, tailer zikin batean. Artean hamabost urte ere bete gabe hasi, eta hirurogeirekin hil zen bihotzekoak jota, lanean ari zela. Lurrean aurkitu zuten eskuak eta aurpegia koipez belztuta. Ez zuen sekula xentimorik aurreztu.

Gontzal: (...)

Polizia: Beraz... Neskarekin maitemindu zara.

Gontzal: Irudi bat besterik ez da!

Polizia: Lanerako tresna bat.

Gontzal: Horixe bera.

Polizia: Ez duzu pantailatik kanpo ezagutu? Ez zaizu hura estudiora ekartzeko gogorik piztu inoiz?

Gontzal: (...) Ez...

Polizia: *(Bat-batean asaldatuta)* Gezurrik ez, ostia!! Gezurrik ez!!! *(Lasaiago, baina mehatxu ukitu batekin)* Zer esan dizut lehen? Gogoan duzu? Galdera batzuk egin nahi nizkizula, zintzo erantzun eta segituan alde egingo nuela, ez nizula enbarazurik egingo. Ez dizut hori esan? Zergatik tematzen zara gauzak okertzen? Komisarian egon behar nuke honezkero, eta zuk lasai lanean, zure negozioarekin, zure... zure bitxikeria hauek egiten. (...) Dena argitu arte ez dut alde egingo, ulertzen? Trago bat behar duzu?

Poliziak garagardo botila hurbildu dio Gontzali. Gontzalek uko egin dio.

Gontzal: Nola dakit nik benetako polizia zarela?

Polizia: (...)

Gontzal: Oraindik ez didazu erabiltzen duzuen plaka hori erakutsi...

Poliziak plaka atera eta erakutsi egin dio.

Polizia: Beste argibiderik?

Gontzal: Ez, ongi dago.

Gontzalek tragoa eman dio garagardoari.

Gontzal: (...) Arte erakustoki bat du lagun batek. Norbaitek huts egin zion eta zerbait ba ote nuen galdetu zidan. Aukera aproposa zen ordura arte egindakoa ikusleen aurrean frogatzeko. Astebeteko erakusketatxoa besterik ez zen, hasiera batean. Baina arrakasta lortu nuen, denon harridurarako. Telebista ere hurbildu zen. Baina suposatzen dut badakizula hori honezkero. Oso gizon informatua ematen duzu.

Polizia: Jarraitu.

Gontzal: Arratsalde batez, auskalo zerk bultzatuta, erakustokira joan nintzen... Bai, gogoan dut: ezagun bati erakutsi nahi nion pieza bat,

erosteko asmoa zuelako. Iritsi nintzenean... han ikusi nuen bera, Mayi, artelan bati begira. Orduan ere ziztada sentitu nuen bihotzean. Baina oraingoan ez nuen beldurrik, ez eta gutxiagorik ere. Harengana hurbildu nintzen.


Polizia: Ez zenion esan erakusketa egingo zenuela?

Gontzal: Ez.

Polizia: Jakiteko eskubidea zuen, ez?

Gontzal: Bai, baliteke. Agurtu egin nuen. “Artista bat zara, *Nagusi*”, esan zidan. Lan guztiak ikusi ote zituen galdetu nion, eta berak baietz, hiru aldiz ikusi zituela. Gero, etxera etortzeko gonbita egin nion, gainontzeko lanak ikus zitzan. Hemen sartu zenean, leku beldurgarria zela esan zidan, baina halere, zoko-moko guztiak arakatzen aritu zen, ezin zion jakin-minari eutsi, edozer gauzarekin harritzen zen. Ametsetako mundu batean balego bezala zebilen hara eta hona. Bera ere igo zen itsasargia ikustera, eta handik itsasoa. Zuk egin duzun gauza bera.

Une horretantxe, Mayi dator eskaileretan behera.



Mayi: Itsasargia piztu beharko zenuke...

Gontzal: Aspaldi dago matxuratuta.

Mayi: Bistan da, baina ezin da konpondu?

Gontzal: Baliteke.

Mayi: Horrela denek jakingo lukete non zauden.

Mayi bazter batean utzitako margo ñimiño bat hartu eta hari begira dago.

Gontzal: (*Irribarre*) Zertarako ordea? Itsas gizonen bost ni non nagoen...

Polizia: (*Gontzali*) Itsasargia berria dela iruditu zait.

Gontzal: (*Poliziari*) Berria erosi nuen. Mayik arrazoi zuen, argiak piztuta behar du. Itsas gizonen bihotz gogorak samurtzeko besterik ez bada ere...

Mayi: Ni hemen biziko banintz, argia piztuko nuke gauero. Itsas gizonen adierazteko hemen badagoela norbait euren zain. Zopa beroa eta basoerdia eurentzako prest daudela mahaian.

Elkarri begira geratu dira.

Mayi: Gontzal Urritia, artista ospetsua.

Gontzal: Junne, musa anonimoa.

Mayi: Mayi da nire izena.

Gontzal: Mayi, polita da.

Mayi: Bakarrik bizi zara?

Gontzal: Orain bai. Emaztea eta alaba bat ditut.

Mayi: Non bizi dira?

Gontzal: Kanpoan, nire bizitzatik kanpo.

Bere irudian oinarritutako pieza bat seinalatuz:

Mayi: Zenbat balio du honek?

Gontzal: Gustatzen zaizu?

Mayi: Ez dago txarto. Zenbat balio du?

Gontzal: Ez dakit, prezioa agenteek jartzen dute.

Mayi: Ez didazu esan nahi?

Gontzal: Ez dakit, bi mila, hiru mila euro.

Mayi: (...)

Gontzal: Asko iruditzen zaizu?

Polizia: Baietz esango nuke.

Mayi: Ez dakit, nik ez dakit ezer gauza horietaz.

Gontzalek argazki kamera hartu eta argazkia egin dio Mayiri. Mayik pantailari erreparatu dio.

Mayi: Eta hori?

Gontzal: Zu hobeto ikusteko.

Polizia: Ez zizun dirurik eskatu bere lanagatik? Azken finean, modeloak negozioaren parte dira, ez?

Gontzal: Ez zidan ezertxo ere eskatu. (*Mayiri*) Urruti bizi zara?

Mayi: Iruñean. Alde egin beharko dugu... azkenengo autobusa galduko dut bestela.

Gontzal: (*Txantxa giroan, ordulariari begira*) Dagoeneko berandu gabiltzala uste dut.

Mayi: (*Irribarre*) Ez da egia.

Gontzal: Norbait zain duzu etxean, ala?

Mayi: Bai, lagun bat.

Gontzal: Neska orduan.

Mayi: Ezin da mutila izan?

Gontzal: Ez da ezinezkoa, baina zaila da mutil bat eta neska bat lagunak izatea.

Mayi: Neska lesbiana bada ere ez?

Gontzal: (...)

Mayi: Hipotesi bat zen... Zuk eta biok ezin dugu lagunak izan?

Gontzal: Gaur hemen lotan geratzen ez bazara, ez. Eramango zaitut nik bihar Iruñera.

Mayi: Ez, autobusez joango naiz.

Gontzal: Ikusten? Ezin dugu lagunak izan, ez dago modurik.

Mayi: (*Irri*) Komunera joan beharra daukat.

Gontzal: Hor, ezkerretan.

Mayi badoa adierazitako bidetik.

Polizia: Portzierto, non duzu autoa? Ez dut autorik ikusi hona etorri naizenean. Eta harritu egin nau, ze, hona etortzeko autoa behar da... Motoa, bestela.

Gontzal: Autoa tailerrean dago, konponketa bat behar zuen.

Polizia: Jakina. (...) Beraz, neska geratu egin zen.

Gontzal: Bai. Berak gelan egin zuen lo, eta nik hemen, sofan.

Polizia: Ziur zaude?

Gontzal: Zinez pozten nau zure zalantza horrek, benetan. Berriketari aritu ginen afalorduan. Tira, ni aritu nintzen hizketan etengabe; izugarritzko jakin-mina zuen, ehundik gora galdera egin zizkidan, gutxienez. Dena jakin nahi zuen, gustura zegoela zirudien. Nik ere banuen norbaitekin hitz egiteko premia, emaztearengandik bereizi nintzenetik ez nuen inorekin horren luze hitz egiteko aukerarik izan. Desagertu egin nahi nuen, isolatuta bizi. Baina bakarrik egotea ez da samurra. Bakardadea jasanezina da. Ni ere gustura nengoen berba eta berba. Baina, zenbat eta kontu gehiago esan, gero eta zaharrago sentitzen nintzen, bion arteko aldea areagotzen ari zela konturatu nintzen. Behin baino gehiagotan galdetu nion neure buruari zer

arraio egiten nuen neska harekin etxean. Azkenean, nire gorabehera guztiak kontatu ondoren, mutil- laguna zuela jakin nuen, eta harekin bizi zela.

Polizia: Ez zuen besterik esan mutilari buruz?

Gontzal: Ez. Ez zirudien gai horretaz hitz egiteko gogorik zuenik.

Polizia: Eta gero?

Gontzal: Gero nahikoa lan izan nuen sofa puta honetan lokartzeko, baina, enfin, azkenean lortu nuen.

Egunak argitu du. Gontzal sofán dago lozorro. Mayi agertzen da gorputz biluzia txabusina batez estalita. Gontzali begira geratu da une batez. Gero, gelan kuxkuxean hasten da, musika aparatua dagoen tokira iristen den arte. Han diskoei begirada bat ematen die. Bat-batean, diskoetako bati erreparatu eta irri egin du. Diskoa aparatuan sartu eta martxan jarri du. Orduan, berak dantza erotikoa egiteko erabili zuen musika berbera entzuten da. Gontzal esnatu egin da. Elkarri begiratzen diote.

Mayi: (Txantxa giroan, diskoaren kutxa erakusten) Zuk zeuk erositakoa da ala oparitu egin dizute?

Gontzalek irribarre egiten du. Mayi haren ondora hurbiltzen da, eskutik heldu eta dantza egiteko gonbita egiten dio. Dantzan hasi dira biak, goxogoxo. Guztiaren lekuko da polizia, baina bat-batean, pazientzia galdu balu bezala jokutzen du: musika eteten du. Gontzalek eta Mayik utzi egin diote dantzan egiteari. Mayi sofán etzan da.

Polizia: Nahikoa da.

Gontzal: Dena jakin nahi zenuela uste nuen.

Polizia: (...) Hala da.

Gontzal poliziari begira geratu da istant batez, gero Mayiri esaten dio:

Gontzal: Zure mutil-lagun horrek ez daki zertan zabiltzan, nola irabazten duzun dirua?

Mayi: Ez.

Gontzal: Eta ez da harritzen web kamera duzulako?

Mayi: Berak jarri zuen.

Gontzal: Berak? Zertarako?

Mayi: Berrikuntza zale amorratua da. Sakelakoa ere azken generaziokoa edukitzen du beti. Gainontzekoetarako ez du nahikoa diru, horiekin konformatu behar.

Gontzal: Eta zuk bere adikzio hori baliatu duzu. Gustatzen zaizu egiten duzuna?

Mayi: Eta zuri? Gustatzen zaizu egiten dudana?

Gontzal: (...)

Mayi: Gaur eramango nauzu autobus geltokira ala hemen geratzera behartuko nauzu?

Gontzal: Behartuta sentitu zara, akaso?

Mayi: (...) Txantxetan ari nintzen. Jakin liteke zenbat diru gastatu duzun dagoeneko nire konexioetan?

Gontzal: Dirua ez da arazo.

Mayi: A ez?

Gontzal: Ez.

Mayi: (...) Zorte handia duzu.

Gontzal: Hala da. (*Poliziarari orain:*) Autobus geltokira eraman eta han utzi nuen. Min egin zidan behartuta geratzearen aipamen horrek.

Mayi badoa kanporantz.

Polizia: Ez al zebilen ba txantxetan?

Gontzal: Inoiz ez da txantxetan hitz egiten. Esaten dugun guztiak beti uzten du agerian barruan gordetzen duguna, norbere "egia". (*Ilun*) Beti saiatzen gara garen hori ezkututzen, baina ez da posible, ezinezkoa da.

Polizia: (...)

Gontzal: Mayiri bisita gehiago ez egiteko erabakia hartu nuen. Akabo internet. Lanean eman nituen hurrengo egunak, pilatutako piezak bukatzen, haiei azken ukituak ematen... Pieza berriren bat edo beste ere egin nuen. Mayiren beharrik gehiago izango ez nuelakoan nengoen. Beraz, berriro ere bakarrik egoteko prest nengoen, edo emaztearekin itzultzeko. Alabarekin bakea sinatzeko prest... Hori guztia Mayiri esan niezaiokeela ere pentsatu nuen. Dagoeneko ez nuela bere beharrik, nik ez dudala inor gogoz kontra ezer egitera behartzen, nire alabaren adin berekoa dela, ume bat dela, ume moko bat, eta hobe lukeela lan puta hori utzi eta zerbait ikasten hastea.

Polizia: Eta? Esan zenion?

Gontzal: Saiatu nintzen... Baina ezin izan nuen, une horretan... beste bezero batekin ari zelako: “Enlace ocupado, permanezca a la espera”.

Pantailan ikusten da Gontzalek deskribatzen duena.

Gontzal: Arnasarik gabe geratu nintzen: morroi nazkagarri bat imajinatu nuen Mayiri begira, hari biluzteko eskatzen, titiburuak kamerara hurbiltzeko esaten... Lau hankatan jar zedin erregutuz... Morroi baten hazia imajinatu nuen haren bizkarrean behera. Minutu mordoa eman nuen pantailan begiak iltzatuta. Errua nirea zela pentsatu nuen, gainera, hari bisitarik egin gabe denbora larregi eman nuelako. Bizkarra eman niolako. “Enlace ocupado”. Joder!!!!

Gontzal sutan ikusten dugu. Bat-batean, artelan bat hartu eta lurrera botatzen du, mila zatitan birrinduz. Sofari ere eman dio ostikada. Sutan dago, ezintasunak sortzen duen ezinegonari eutsi ezinda.

Polizia: Jeloskor zeunden.

Gontzal: (...) Jeloskor? Bai? Jeloskor nengoen? Baliteke.

Pantailan “Enlace ocupado” delakoa ezabatu egiten da, baina Gontzal ez da horretaz jabetu. Mayi ageri da kamerari begira, irribarretsu. Orain, haren atzealdeko horman ez da ageri Gustav Klimten margolana, Gontzalek Mayiren bizkar biluziari egindako argazki artistikoa baizik.

Mayi: A ze sorpresa. Uste nuen dagoeneko ez zenuela ni bisitatzeko inolako asmorik.

Gontzal: (...) Bai... zera... kanpoan ibili naiz.

Mayi: **Negozioak?**

Gontzal: Zer egiten du argazki horrek hor?

Mayi: **Zurean egon nintzenean kaxoi batetik hartu nuen, oroigarri gisa.**

Gontzal: Lapurtu egin zenidan?

Mayi: **Zurekin gogoratzeko modu bat da.**

Gontzal: Beste batekin zaudenean nitaz gogoratzeko?

Mayi: **Izugarrizko arrakasta du, bezeroek nahiago dute hau lehengo margolana baino.**

Gontzal: (...)

Mayi: **Hor zaude?**

Gontzal: Beste bezero horiek ez zaituzte ezer egitera behartzen?

Mayi: **Zer esan nahi duzu?**

Gontzal: Behartzen zaituzte, bai ala ez?

Mayi: **Lan bat da.**

Gontzal: Jakina. Lan bat. Eta orain lan ordutan zaude.

Mayi: **Hala da.**

Gontzal: Orain eskatu ahal dizut orduan... ez dakit, lau hankatan jartzeko, adibidez.

Mayi: (...)

Gontzal: Eskatu ahal dizut, ezta?

Mayi: **Hori nahi duzu?**

Gontzal: Zergatik ez?

Mayi: Ongi da.

Mayi lau hankatan jartzen da bere gelako sofan.

Gontzal: Erakutsi ipurdia.

Mayi agindutakoa egitera doanean Gontzalek konexioa eteten du. Lur jota dago.

Gontzal: Zertarako nahi duzu jakin hau guztia?

Polizia: Dena da inportantea, zuk ere ederki dakizu hori, zure lanetan detaile txikiak ere badu garrantzia, ala? Hala izaten da, ezta? Guri antzeko zerbait gertatzen zaigu.

Gontzal: Ongi da...

Mayi agertzen da pantailan, beste soineko bat aldean.

Mayi: Nahi baduzu argazkia itzuliko dizut.

Gontzal: Ez, ez da beharrezkoa. Zuretzat da.

Mayi: Eskerrik asko.

Gontzal: Zera, atzo...

Mayi: Sari bat irabazi duzula irakurri dut egunkarian.

Gontzal: Bai, egia da.

Mayi: Inportantea?

Gontzal: Bai, ongi dago.

Mayi: Zorionak.

Gontzal: Eskerrik asko. Zera, Mayi...Zergatik ez zatoz hona, astean egun batzuk egin ditzakezu hemen. Hobeto egingo nuke lan.

Mayi: Ezin dut.

Gontzal: Zergatik? Ordaindu egingo dizut.

Mayi: (...) Ezin dut.

Gontzal: Baina zergatik? Ez zara nitaz fio? Ez al da hau toki polita?

Mayi: Ez da hori.


Gontzal: Mutil-lagunagatik da?

Mayik begirada jaitsi du.

Polizia: Zer erantzun zuen?

Gontzal: Ez zuen ezer esan.

Mayiren irudia desagertzen da.



Polizia: Nola ez zuela ezer esan?

Gontzal: Zenbat aldiz esan behar dizut?

Polizia: Mutilagatik zela esan nahi zuen?

Gontzal: Baliteke.

Polizia: Baliteke? Adarra jo nahi didazu?

Gontzal: Adarra jo?

Polizia: Bai, hala iruditzen zait niri. Adarra jo nahi didazula.

Gontzal: Erotzekoa da! Ze esan nahi duzu, hona etortzearren erail duela mutil-laguna?!

Polizia: (...) Nik ez dut hori esan.

Gontzal: Jakina, zuk ez duzu hori esan.

Polizia: Ez, nik ez dut horrelakorik esan.

Gontzal: Hara, nekatzen hasita nago...

Polizia: Ulertzen dut eta eskertzen dizut erakusten ari zaren pazientzia. Honek gauzok nekagarriak izaten dira. Baina komisarian are gogaikarriagoa egiten da hau dena, sinetsiezadazu.

Gontzal: Zergatik zaudete hain ziur berak... hil duela?

Polizia: Zantzu gehienek neska izan dela adierazten dutelako. Gizona etxera sartu eta berehala gertatu zen, etxeko sarreran bertan. Hamalau labankada sartu zizkion bularrean eta beste hiru bizkarrean. Ongi etorri ederra, ez duzu uste?

Gontzal: (...)

Polizia: Egia aitortu behar badizut harrigarria iruditzen zait. (...) Azken hilabeteotan neska horrekin zuk izan duzu harremanik estuena, eta halere, ez dakizu ezer. Susmorik txikiena ere ez!

Gontzal: Zergatik jakin beharko nuke? Hau erokeria! Gainera, Mayik bezero gehiago izango zituen, ala?

Polizia: Ez. Azken hiru hilabeteotan zu izan zara harekin harremanetan jarri den bakarra. Itxuraz, neskak hala nahi izan duelako.

Gontzal: (...)

Polizia: Ez zizun esan? Ulertuko duzunez, ezinbestekoa zen zurekin hitz egitea. Eta nahiago izan dugu horrela egin, isilpean, kazetariak bazka ederra izango lukete bestela... zure izena, zure familiaren izena, kasu honetan agertuko balitz.

Gontzal: (...)

Polizia: Ez didazu eskerrik eman behar: gorroto ditut kazetariak, doazela popatik. Hau guztia isilean argituko dugu, hori da gure asmoa, hori da biderik egokiena. Inork ez du ezer jakingo.

Gontzalek barre egiten du, tentsioak nonbaitetik lehertu behar zuen.

Polizia: Zer iruditzen zaizu horren barregarri?

Gontzalek: Barkatu.

Polizia: Barregarri iruditzen zaizu?

Gontzal: (*serio*) Ez, inola ere ez.

Polizia: Noiz ikusi zenuen azkenekoz?

Gontzal: Ez duzu zure orritxo horretan apuntatuta?

Poliziak, tupusteko eroaldi batek jota balego bezala, artelan bat hartu eta mila pusketatan txikitu du.

Gontzal: Zertan ari zara!!

Poliziak bigarren bat hartu du, hura ere apurtzeko asmo sendoarekin. Gontzal korrika hurbildu zaio ekidin nahian...

Gontzal: Ero puta halakoa!

...Baina Poliziak iskin egin dio eta mugimendu azkar batez lurrera bota du Gontzal. Gontzal han dago izututa, zutik geratu den poliziarri begira. Poliziak oraindik ere artelana eskuan du. Zalantzan dago, jaurti ala ez jaurti.

Polizia: Badakizu zer uste dudan?! Zuk lagundu zeniola neskari mutil laguna akabatzen! Zentzuzkoa da... Zu zinen haren etxeko sarreran zegoen morroia, eskuan labana hartuta!

Gontzal: Nahikoa da, hau gehiegi da! Erotuta zaude!

Poliziak bigarren pieza lurrera jaurti du bortizki eta hau ere mila puskatan birrindu da.

Gontzal: Nahikoa da!!!

Polizia: Badakizu zer dudan apuntatuta nire orritxoan? Orain hiru aste Mayi Kortabarriaren sakelakora deitu zenuela. Eta ez zen telefonoz deitzen zenion lehen aldia. Dagoeneko internet bidezko harremana ez zen aski, ezta? (...) Inozoak garela uste duzu? Egia jakingo dut, ez izan duda izpirik!

Gontzal: (*Burumakur*) Ondo da.

Gontzal lurretik altxatu eta Poliziari begira geratu da. Gero, arte pieza baten zatia hartu du lurretik eta begira geratu zai.

Gontzal: Dena aitortuko dizut. (...) Orain bi hilabete gertatu zen.

Gontzalek ordenadoreko "sartu" tekla zanpatu du. Pantailan Mayi ageri da, zeharo makillatuta.

Gontzal: Zer da hori?

Mayi: Ez zaizu gustatzen?

Gontzal: Ez dago txarto.

Mayi: Ez zaizu gustatzen.

Gontzal: Ez dut hori esan.

Mayi: Pieza gehiago egin duzu?

Gontzal: Jakina. Atzo hasitakoa amaitu eta beste erakusketa baterako materiala edukiko dut.

Mayi: Ze ondo. Aspaldi ez didazu eskatzen postura honetan edo beste modu horretan jartzeko. Dagoeneko agortu zaizkizu ideiak? Edo horra joan ez naizelako zigortu nahi nauzu?

Gontzal: Ez da hori.

Mayi: Begira zer prestatu dizudan.

Mayik mahai azpian duen zerbait manipulatzeko du eta gela neoizko argiz betetzen da.

Gontzal: Ze ero haizek jo dizu?

Mayi: Gustatzen?

Mayik neoizko hodi bat hartu eta harekin ari da jolasten, bere gorputzeko atal ezberdinak hodiarekin lastanduz. Gontzalek irudian zerbait ikusi du harritu duena, neskaren bizkarrean zauri bat izan litekeena ikusi du.

Gontzal: Itxaron. Zaude!

Mayi: Ze...

Gontzal: Itzali argi hori, mesedez, eta jarri bestea.

Mayi: Baina...

Gontzal: Egizu, Mayi.

Mayik agindutakoa bete du.

Mayi: Ez zaizu gustatu?

Gontzal: Erakutsi bizkarra.

Mayi: Zer?

Gontzal: Erakusteko bizkarra.

Mayi: Ez dut...

Gontzal: Mayi, zer duzu bizkarrean?

Mayi: Hori? Ez da ezer.

Gontzal: Erakuts iezadazu.

Mayi: Ez da ezer. Jausi egin nintzen.

Gontzal: Erakutsi iezadazu.

Mayi: Erdi lo nengoen eta sukaldeko mahaiaren ertzaren kontra...
(...) Aizu, beste baterako utziko dugu, konforme?


Gontzal: Kendu makillajea... begi ingurukoa.

Mayi: Nahikoa da, Gontzal, mesedez.

Gontzal: Kendu aurpegiko margo horiek, joder!

Mayi: Nahikoa da, ez dut egingo. Berandu da.

Mayik konexioa eteten du.



Polizia: Zergatik ez zenion sinetsi?

Gontzal: Argi dago. Gezurretan ari zelako.

Gontzalek berriro zanpatzen du ordenadorearen tekla. Mayi dago kamerari begira, kopetilun.

Gontzal: Zergatik ez duzu erantzun egunotan?

Mayi: Kanpoan egon naiz.

Gontzal: Kanpoan?

Mayi: Ezin dugu honekin jarraitu.

Gontzal: Zer diozu?

Mayi: Sentitzen dut.

Gontzal: Itxaron, Mayi, entzun iezadazu. Mayi, zer gertatzen ari den esan behar didazu.

Mayi: (...) Ahantz nazazu.

Mayik konexioa eteten du. Gontzalek beste garagardo botila bat hartzen du.

Gontzal: Detaileak inportanteak dira oso. Zuk esan duzu. Orduan ulertu nituen gauza asko: mutilak lanean harrapatuko ote zuen beldur hura, nirera etortzeko gonbitari emandako ezetza. Argi zegoen. Ezin nuen ezer egin. Egunak eman nituen behin eta berriro saiatuz, bere interneteko helbidean sartu ezinda. Erotu egingo nintzela pentsatu nuen. Mayi gezurretan ari zen...

Polizia: Mutilak egurtu egiten zuela esan nahi duzu? Baina berak ez zizun hori esan, ala bai?

Gontzal: Ez, berak ez, mutilak egin zuen.

Gontzalek berriro zanpatzen du ordenadorearen tekla. Mayi dago kamerari begira.

Gontzal: Mayi, hitz egin behar dugu. Horra joan naiteke.

Mayi: Ez.

Gontzal: Kafe bat hartuko dugu elkarrekin, ados?

Mayi: Ez.

Gontzal: Joder, Mayi, ez esan ezetzik!

Mayi: Ez garrasirik egin.

Gontzal: Ondo da, Mayi, baina ezetzik ez, ados?

Mayi erne jarri da derrepente.

Gontzal: Zer duzu? Mayi, zer gertatzen da?

Mayik isiltzeko eskatzen dio hatz erakuslea ezpain gainean jarrita. Orduan, ziztu baten pare, norbait sartzen da gelan. Mayik ez du erreakziorako betarik. Sartu den hori neska egurtzen hasten da gupidarik gabe. Irudiak ez du ondo erakusten (kamera lurrera erori delako), baina neskaren garrasiak eta kolpe hotsak nabarmen entzuten dira. Gontzal ero baten moduan ari da garrasika, maite duen hori nola jipoitzen duten zuzenean ikusten, ezer egin ezinda.

Gontzal: (Garrasi batean, izu-ikaraz) Ez, ez, aski da!!! Askia da!!! Ez, putasemea!!! Ez!!!! Nahikoa da, arren, mesedez!!!! Kabroia!!! Urde zikina!!!! Ez, ez, ez!!!!!!!!!!!! Poliziari deituko diot, horixe, kabroia!!!!

Erasotzaileak web kamera hartu eta lurrean dagoen Mayiren aurpegiari begira jarri du. Mayiren begiak malkotan daude, eta erabat izututa dagoela adierazten dute. Erasotzaileak ostikada berri bat eman dio eta orduan Mayik, kamerari begira, zera esan du:

Mayi: Poliziari deitzen badiozu akabatu egingo nau.

Konexioa eten egiten da. Gontzal hondoa jota dago, izututa, negar malkotan.

Polizia: Ez zenuen ezer egin?

Gontzal: Ez.

Polizia: Horrela geratu zinen? Ezer egin gabe?

Gontzal: (...)

Polizia: Zergatik?

Gontzal: Beldurragatik. Beldur nintzelako. Mayiri min egingo zion... Zer egin nezakeen?

Polizia: (*Isilune luzea*) Tira, orain badugu motibo bat. Eta hura ezkututzen saiatu zara hona etorri naizenetik. (...) Ez duzu zintzo jokatu. Hasieratik kontatu behar zenidan.

Gontzal: Orain utz nazazu bakean.

Polizia: Nola?

Gontzal: Uzteko bakean!

Polizia: (...) Neska non dagoen esaten didazunean egingo dut alde.

Gontzal: Ez dakit ezer.

Polizia: Komisarian jarraitu nahi duzu?

Gontzal: (...)

Polizia: Hori nahi duzu?

Gontzal *zutitu egiten da.*

Gontzal: Horixe nahi dut.

Polizia: Badakizu horrek zer suposatzen duen? Ezingo dugu hau guztia isilean gorde, jabetzen zara?

Gontzal: (...)

Polizia: Ongi da.

Poliziak *sakelakoa atera eta deia egin du.*

Polizia: Aitor, bidali auto bat itsasargira. Bai: komisarian jarraituko dugu. (...) Baliteke. (...) Nola? Non? (...) Konforme. Bale, laster arte.

Poliziak eskegi du sakelako telefonoa.

Gontzal: Ez dago txarto...

Polizia: Zer?

Gontzal: Sakelakoa. Erakutsiko?

Poliziak inguratu egin dio erakusteko asmoz, baina, gero mugimendu azkar batez, sakelan gorde du ostera.

Gontzal: Zu bezalakoak diruz estu ibiltzen zirela uste nuen. Sakelako horrek ez du merke itxurarik.

Polizia: Zure autoa Audi familiar bat da, ezta? Beltza.

Gontzal: (...)

Polizia: Beltza.

Gontzal: (...)

Polizia: Baduzu beste autorik?

Gontzal: Ez, bakarra. Eta hala da, bai, Audi beltz bat da.

Polizia: Tailerrean zenuela uste nuen, hori esan didazu lehen... Konpontzen ari zirela.

Gontzal: (...)

Polizia: Ziur tailerrean duzula?

Gontzal: Hara eraman nuen.

Polizia: Ia. Bitxia da, ze, oraintxe esan didatenez, Mayik istripua izan du, Iparraldean, Mauletik hiru bat kilometrora. Talka egin du beste auto baten kontra.

Gontzal zur eta lur geratu da.

Polizia: Mayi Audi beltz batean zihoan. Anbulantzia iritsi denerako hilda zegoen.

Gontzal *sofan eseri da, lur jota. Poliziak, lehen aldiz, tragoa eman dio mahaitxoan zegoen garagardo botilari.*

Polizia: (...) Tira, buka dezagun behingoz. Zer gertatu zen neska jipoitu ondorengo egunetan?

Gontzal: (...)

Polizia: Esan: hartu zenuten zuk eskatutako kafe hori elkarrekin? Ez dut uste esan beharra dagoenik zure egoerak... Nola esan? “Okerrera” egin duela. Lagundu egin behar zenidake hau argitzen, ez duzu uste?

Gontzal: (...)

Polizia: Ez dakit jabetzen zaren egoeraren larritasunaz... Leporaino sartuta zaude kontu honetan. Hartu zenuten kafetxo hori, bai ala ez?!

Gontzal: (...) Bai, hartu genuen. Baina ez ni hara joan nintzelako, bera etorri zen hona.

Mayi *agertzen da, eguzkitako betaurrekoak jantzita. Mayi eta Gontzal elkarri begira geratu dira une batez, ezer esan gabe.*

Mayi: Atea zabalik zegoen.

Gontzal: Zu noiz iritsiko zain. Nola...?

Mayi: Taxi batek ekarri nau.

Polizia: Noiz gertatu zen hori?

Gontzal: (*Poliziari*) Herenegun.

Polizia: Hilketak gertatu baino egun bat lehenago.

Mayi: Egarrri naiz, baduzu garagardorik?

Gontzal: Jakina. (...) Ongi zaude?

Mayik ezetz esaten du buruaz. Gontzalek, erabat hunkituta, harengana hurbildu eta besarkatu egiten du. Ez da erraza antzematen nork duen besarkada jasotzeko behar handiagoa, Mayik ala Gontzalek berak.

Gontzal: Nire errua izan zen, nik behartu zintudan berriro ere interneten bidez...

Mayi: *(Aurrekoaren jarioa eten du, hatza haren ezpainetan jarrita)* Ixo, ez da egia, ez da zure errua.

Gontzal neskaren hatza musukatzen hasi da: gero musu eman dio ezpainetan, lepoan ondoren. Gontzalek estu hartu du neska.

Mayi: *(Pauso bat atzera)* Mesedez, Gontzal.

Gontzal: (...)

Mayi: Egarrri naiz.

Gontzal: Barkatu, ni...

Mayi: Ez eskatu barkamenik.

Gontzal: Ez dakit zer... Ez nuen nahi...

Mayi: Ongi da, benetan.

Gontzal: Garagardoa nahi duzu, ezta? Jakina.

Badoa Gontzal garagardo bila. Mayik poltsa mahaitxo baten gainean utzi du eta sofán eseri da, akituta antza. Badator Gontzal garagardo botila eskuan duela. Mayiri eskaini dio.

Mayi: Hil egingo nau. Badakit hil egingo nauela.

Gontzal: Poliziari deituko diogu, oraintxe bertan.

Mayi: Ez.

Gontzal: Nola ezetz? Zuk esan duzu, ez dago beste biderik!! Deitu eta akabo! Ustel dadila espetxean!

Mayi: Biok hilko gaitu.

Gontzal: Zer diozu baina?

Mayi: Burua galdu du.

Gontzal: Deitu egingo dut.

Gontzal zutitu eta abiatu da telefono bila.

Mayi: Hil egingo dut.

Gontzal: Zer?!

Mayi: Badakit nola egin. Akabatu egingo dut putaseme hori, berak ni akabatu aurretik.

Gontzal: Mayi...

Mayi: Eta gero hona etorriko naiz zurekin bizitzera.

Gontzal: (...) Zergatik ez zara hemen geratzen? Atxilotu egingo dute. Hemen ez zaitu aurkituko.

Mayi: Ez duzu ezagutzen.

Gontzal: Beraz, kabroi horrek zu jipoitzeaz gain hiltzaile bihurtuko zaitu! Horixe, zu kartzela zuloan usteltzea lortuko du...

Mayi: (...)

Gontzal: Hori da nahi duzuna?

Mayi negarrez hasten da. Neskatila babesgabea dirudi, ezertarako ezgauza. Sofan etzan da, Gontzalen magalean, lo hartzen duen arte. Gontzalek, poliki-poliki, tentuz, zutitu da eta manta bat ipini dio gainean.

Gontzal: (*Poliziari*) Ez nituen inola ere bere mehatxuak aintzat hartu. Nola sinetsiko nuen ba, Mayi pertsona bat hiltzeko gai izango zenik? Ezinezkoa zen.

Polizia: Zenbat halako... Pertsona itxuraz ahulenak izaten dira gero hiltzaile sadikoenak.

Gontzal: Baina Mayi biktima zen.

Polizia: Bat-batean borrero bihurtu zena.

Gontzal: Bat-batean ez, inola ere ez: putaseme horrek kolpeka atera zuen Mayik barruan gordeta zuen...

Polizia: Piztia.

Mayi esnatu egin da. Sofan eseri da. Zutitu, mahaitxoaren gainean utzitako poltsa hartu eta alde egin du.

Polizia: Agurtu gabe egin zuen alde?

Gontzal: Bai.

Polizia: Ez zuen inolako oharrik utzi?

Gontzal: Ez, deus ez.

Polizia: Lastima. Baliagarri izango zen kasua guztiz argitzeko. Eta, zer egin zenuen zuk neska joan zela konturatu zinenean?

Gontzal: Berandu konturatu nintzen. Gau osoa loak hartu ezinda eman nuen, eta gero... berandu esnatu nintzen, eguerdiko hamabiak inguruan.

Polizia: Ño, kasualitatea: mutil-lagunaren heriotza gertatu zen ordu bertsuan. Mutila atzo hil zuten, hamabiak aldera, baina arratsaldeko bederatziak arte ez zuten gorpua aurkitu.

Gontzal: (...) Pozik egongo zara, argitu duzu kasua.

Polizia: Zuk uste? (...) Badakizu zer uste dudan nik? Zorte handia izan duzula... neska hil delako.

Gontzal: Zer esan nahi duzu?

Polizia: Zuk ere bazenuela mutil hori akabatzeko nahikoa arrazoi.

Gontzal: (...) Nik hil dudala uste duzu benetan?

Polizia: Zergatik ez?

Gontzal: Une batez nahiago izan nuen hala izatea. Lagundu egin behar nion; baina ez nuen ezer egin, ez nuen ezer egin... Zantzu guztiek neska izan dela argi uzten omen dute, zerorrek esan duzu.

Polizia: “Gehienek” esan dut, ez “guztiek”.

Gontzal: Hau erokeria.

Polizia: (...) Zer egiten zuen Mayik zure autoarekin Iparraldean?

Gontzal: (...) Deitu egin zidan, telefonoz...

Polizia: Ze ordutan?

Gontzal: Ordu biak inguruan, honantz zetorrela. Oso urduri zegoen. Ez zidan besterik argitu... itsasargira iritsi zen arte.

Mayi sartzen da etxean, izuak goitik behera jota.

Gontzal: Zer arraio gertatu da, Mayi?! Zergatik egin duzu alde ezer esateke? Mayi!

Mayi: Egin dut.

Gontzal: Zertaz ari zara? Mayi, mesedez!!

Mayi: Putaseme horrek ez nau berriro jipoituko.

Gontzal: Joder! Zer... zauria duzu! Ze egin duzu, zoro horrek? Nola egin duzu horrelako astakeria? Mayi, Mayi, Mayi!!

Gontzalek Mayik eskua inguratzeko erabili duen zapia hartu du eta odol arrastoa duela ikusi du.

Mayi: Kakak ere irten egin dio kabroiari, zerriak gainean egin du beldurraren beldurrez... Ikusi egin behar zenituen haren begiak, izututa zegoen, izua ikusi dut haren begietan: bazekien hiltzera zihoala. Hala nahi nuen nik: jakin zezala.

Gontzal: Joder, Mayi!

Mayi: Bere zain egon naiz, gaueko txanda zuen. Han egon naiz, zain, ohean etzanda, labana izarapean gordeta. Urduri jarri eta sarrerara joan

naiz. Berandu etorri da. Ez diot hitz bat bera ere esaten utzi, hitz bakar bat ere ez... Labana sartu diot. Sartu egin diot. Odolez bete dit kabroiak soinean neraman kamiseta.

Gontzal: Zer egin duzu kamisetarekin?

Mayi: Poltsa batean sartu eta autobus geltoki ondoko edukiontzira bota dut, labanarekin batera.

Gontzal: Joder!

Mayi: (*Zeharo urduritzen hasita*) Gaizki egin dut?

Gontzal: Gaizki egin duzun? Mayi, Mayi! Ez zara konturatzen? Dena aurretiaz pentsatuta izango bazenu bezala jokatu duzu!! Seguru zaude hilda zegoela etxetik alde egin duzunean?

Mayi: Baietz uste dut.

Gontzal: Uste duzu?

Mayi: Bai, bai, hilda zegoen.

Gontzal: Joder!

Mayi: Utzi “Joder” esateari, ostia!! Ez dakizu besterik esaten?! Joder, Joder, Joder!!! Zer egingo dut?! Jo egiten ninduen, akabatu egingo ninduen goiz ala berandu!! Zer egin nezakeen?! Lagundu egin behar didazu!

Gontzal: Inoiz jarri duzu salaketaren bat haren kontra zu jipoitzeagatik?

Mayi: Ze...

Gontzal: Zuri lagundu nahian nabil, Mayi. Zuri lagundu nahian nabil. (...) Egin duzu inoiz? Inoiz jarri duzu salaketaren bat haren kontra?

Mayi: Ez.

Gontzal: (...) Entzun gauza bat. Pentsatzeko denbora behar dut, ados?

Mayi: Komisariara joan naiteke...

Gontzal: Dagoeneko berandu dela uste dut.

Polizia: Arrazoi osoa zeneukan. Bere etxean geratuta ere ez zuen kartzela zigorra saihestuko.

Gontzal: (*Polizari*) Gure familiak Maulen duen landetxe bateko giltza eman nion. Nik dena prestatu arte han egoteko eskatu nion.

Polizia: Zer zen prestatu behar zenuen hori?

Gontzal: Betirako desagertzen lagundu behar nion. Etxetik alde egin zuenean, irtenbide egokirik ba ote zegoen pentsatzen hasi nintzen. Badut ezagun bat Frantziako ekialdean bizi dena, Savoia Goikoan, Suitzatik oso gertuko herrixka batean. Leku zoragarria eta lasaia. Mayi bizitzeko leku aproposa zela pentsatu nuen.

Polizia: Ez zenuen zeure burua arriskuan jartzen ari zinela pentsatu?

Gontzal: Mayi kartzelan ikusi baino nahiago izan nuen arrisku hori hartu.

Polizia: Autoko giltzak eman zenizkion, beraz. Eta Maulerantz abiatu zen.

Mayi zutitu egiten da eta badoa kanporantz. Baina, halako batean buelta erdia hartu eta Gontzalengana hurbildu da. Musu eman dio, maitekiro. Badoa.

Polizia: Baina istripua gaur izan du...

Gontzal: Ez dut ulertzen. Agian zerbait errotera aterako zen...Zer dakit ba nik...

Polizia: Baliteke. (...) Zorte handia duzu, bai. Zorte handia neska hil delako.

Gontzal: (...) Ez didazu sinesten?

Polizia: (...) Mayiren heriotzak ez zaituela espero zitekeen beste... "hunkitu" esango nuke.

Gontzal: (...) Zer nahi duzu?

Polizia: Nire lana bete, besterik ez.

Gontzal: Komisariara eramango nauzu?

Polizia: Tira, kakaz leporaino zaudela esango nuke.

Gontzal: Nik ez nuen hil.

Polizia: Baina hiltzaile baten konplize izan zara, nahikoa delitu da hori urte batzuk giltzapean egiteko.

Gontzal: Biktima bati laguntzen saiatu nintzen. Kabroi horrek...

Polizia: (*Bestearen hitz jarioa etenez*) Badakizu zein den egia bakarra? Kabroi horrek Mayi jipoitzen zuela eta zuk ez zenuela hura garbitzeko potrorik izan... Ulergarria. Baina... salatzeko ere ez zenuen potrorik izan, eta hori da... nazkagarriena. Zuk “arte” egiten jarraitu zenuen zeure paradisu honetan, horixe; eta zure kastakoen gozamenerako Mayiren bizkar biluzia erakusten jarraituko duzu aurrerantzean. Neskarekin txundituta zeunden, baina ez duzu ezer egin gertatu dena saihesteko. Ez duzu ezer egin, ganorazko ezer esan nahi dut, probetxuzko ezer ez. Begira nola bukatu duen gizajoak... Sekula gidatu ez zuen auto baten giltzak eman zenizkion, hori bai. Ez zenuen haren laguntza eskaera aintzat hartu. Izan ere, nola azaldu zeure ingurukoei txat zorritsu batean ezagututako neska batekin nahastuta zenbiltzala... Kontatu zenion norbaiti?

Gontzal: (...)

Polizia: Ez, isilik gorde zenuen zure sekretutxo. (...) Eta orain hemen gaude, polizia autoa noiz etorriko zain. Akabo zeure karrera, pikutara bizimodu kilikagarria, zure itsas argi partikularretik itsaso zabalari begira egotea... Benetan uste duzu ez duzula zigorrik merezi?

Polizia Gontzali begira geratu da une batez, hausnarketan ari da.

Gontzal: Dirua nahi duzu. Horixe da, ezta? Dirua!

Polizia: (...)

Gontzal: Dirua nahi duzu?!

Polizia: Enfin, neska horrek ederki ordaindu du egindakoagatik... Zer emango zenuke zuk?

Gontzal: Dirua...(...) Polizi-autoa bidean zetorrela uste nuen.

Polizia: Dei batekin konpon daiteke hori.

Gontzal: (...) (*Irribarre iluna ezpainetan*) Hori zen orduan kontua... Dirua. Nola ez ote naiz lehenago jabetu?

Polizia: (*Ezin du ulertu Gontzalen irribarrearen arrazoia*) Barregarria iruditzen zaizu?

Gontzal: Eta, zenbat diru ateratzea espero zenuen?

Polizia: Txantxetan nabilela uste duzu?

Gontzal: (*Poliziarengana hurbilduz doala*) 60 mila euro? 100 mila, 300 mila? Zenbat nahi duzu?

Bat-batean, Gontzalek eskuan zuen garagardo botilarekin eman dio buruan poliziarri. Polizia lurrera jausi da garrasi batean, minaren minez. Gontzal azkar ari da, hartu du sofa estaltzen zuen izara eta haren muturrarekin poliziaren lepoa inguratu du. Polizia ito beharrean dago. Gontzalek gogor eusten dio, ez du gizona askatzeko inolako asmorik. Indarrik gabe eta ia konortea galduta utzi duenean bakarrik askatu du polizia. Gero kutxa batetik soka atera eta hura baliatu du Poliziaren eskuak hari bizkarrean lotzeko. Lanak bukatu ondoren, polizia inolako irtenbiderik gabe dagoela ikusi duenean, garagardo botila bat hartu eta tragoa eman dio, urduritasuna baretze aldera. Gero poliziarri kartera eta pistola kendu dizkio, eta biak ala biak aztertu ditu. Gero sakelakoa kendu dio.

Polizia: (*Erreakzionatzen hasi da*) Zertan ari zara? Erotu egin zara!

Gontzal: (*Sakelakoa erakutsiz*) Punta puntakoa, ederra trastea.

Polizia: Aska nazazu!

Gontzal: Askatzeko?

Gontzalek ostiko eman dio behin eta berriro sabelean lurtean etzanda dagoen Poliziarri.

Polizia: (*Minaren minez*) Zureak egin du. Bidean dira nire lankideak.

Gontzal: A bai?

Sakelakoa hartu eta Poliziari erakutsi dio.

Gontzal: Ez diozu inori deitu. Telefono honetatik egin den azken deia gaur goizekoa da.

Polizia: (...)

Gontzal: Non da Mayi?

Polizia: (...)

Gontzal: Non da Mayi?!

Polizia: Ez...

Gontzal: Pistola buruan jartzen badizut ere ez?

Polizia: (*Irribarre*) Ez zara inor hiltzeko gauza.

Gontzal: Arrazoi on bat behar da horretarako bai, edo arrazoi gaizto bat, hobe esanda. (...) Zuk bakarrik pentsatu duzu hau guztia? (...) Zenbat denbora eman duzu hau prestatzen? Nor zaren ez dakidala uste duzu?

Gontzal ordenadorera hurbildu eta hura manipulatzeko hasi da pantailan argazki batzuk agertzen diren arte. Argazkiotan, Mayi eta Polizia agertzen dira. Kanean ateratako argazkiak dira, eurek jakiteke ateratako argazkiak. Batzuetan muxuka, beste batzuetan eskutik helduta ageri dira. Polizia zur eta lur geratu da argazkiok ikustean.

Gontzal: Egia besterik ez dizut kontatu. Baina egia da beste zenbait pasarte isilean gorde ditudala... Hau, adibidez. Mayi etxera etorri zen lehen aldian, autobus geltokira eraman nuen autoz biharamunean. Baina gero ez nintzen itsasargira itzuli. Autobusari jarraitu nion. Mayi non bizi zen jakin nahi nuen. Egun horretako argazkiak dira hauek. Etxean sartu zaren unetik jakin dut gezurretan zenbiltzala: zu zara Mayiren mutil-laguna.(...) Polizia zara benetan?

Polizia: Bai... askatu, ez okertu gauzak gehiago...

Gontzal: Maite duzu?

Polizia: (...)

Gontzal: Maite duzu?

Polizia: (...) Bai.

Gontzal: Nik ezetz uste dut.

Polizia: Zer dakizu zuk? Ez dakizu ezer gutaz. Mayi nolakoa den badakizula uste duzu?

Gontzal: Nolakoa da ba?

Polizia: (...)

Gontzal: Ez duzu erantzun nahi ala ez dakizu zer erantzun? Badakizu zer den Mayi? Musa bat. Horixe da. Musa bat. Eta zu ez zara horretaz konturatu, putaseme kabroi bat zarelako. (...) Bitxia da. Zu akabatzeko gogoia izan dut sarri, sinetsita nengoen Mayi egurtzen zenuela. Eta orain ere zu akabatzeko gogoia daukat. Mesede galanta egingo nioke Mayiri zu bezalako miserable bat harengandik urrunduta.

Gontzal eseri da sofán, negarrak ere irten dio, hain dago urduri eta atsekabetuta...

Gontzal: Putasemea...

Polizia: (...) Umetan jipoitu egiten zuen aitak: ez, ez zuen bortxatzen, ez zion argazki lizunik ateratzen... Baina jo egiten zuen Mayi. Eta nola gainera. Modu askotan. Baina bazuen bat gogokoena: hiztegiarekin ematen zion buruan, behin eta berriro, Mayi txikia zorabiatuta lurrera erortzen zen arte. Bere aitak. (...) Aska nazazu. Ospa egingo dut eta kitto. Ahaztu egingo dugu hau dena, bale? Ez gaituzu berriro ikusiko.

Gontzal: Mayirekin hitz egin nahi dut.

Polizia: (...)

Gontzal: Non dagoen esaten badidazu aske utziko zaitut.

Polizia: (...) Hau guztia Mayiren ideia izan da.

Gontzal: Ez da egia.

Polizia: Ez duzu ezagutzen. Esan dizu inoiz kartzelan egondakoa dela? Bi urte eman zituen itzalpean, hotel batean lapurreta egiteagatik. Iaz atera zen. Edozein egunkaritako hemerrotekan aurkituko duzu: begiratu interneten, ea gezurra den. (...) Berak antolatu zuen dena, den dena, xehetasun guztiak...

Gontzal: Nahikoa da!! Ixo!! Gezurretan ari zara, putakumea.

Gontzal zutitu egiten da, pistola hartu du.

Polizia: Zer egin behar duzu?!

Gontzal: (...) Ezer ere ez, ez dut ezer egingo, ez dugu ezer egingo. Hemen egongo gara zain... Mayi etorri arte.

ILUN.



Lehen entzun dugun musika pieza entzuten hasten gara, dantzarako erabili duten pieza bera. Abestiak argiari emango dio bide. Eszenatokia berriro ere argizatzen denean Gontzal ikusten dugu bakarrik, gela txukuntze lanetan. Lasai antzean dabil. Ez dago poliziaren arrastorik. Halako batean, txirrin hotsa entzuten da. Egiten ari dena utzi, musika kendu, eta arnasa sakon hartu ondoren, horman dagoen botoia zanpatu du Gontzalek, sarrerako atea zabaltzeko. Laster agertu da Mayi gelan.

Gontzal: (Kezkatuta, itxurakerian) Zer egiten duzu hemen?! Zerbait gertatu da?! Arazoren bat eduki duzu? Ez zenuen landetxea aurkitu?

Mayi: Ez, zera... Ez nuen bakarrik egon nahi...eta...

Gontzal: Mayi, oraindik arriskuan zaude!

Mayi: Badakit baina...ez nuen bakarrik egon nahi.

Gontzal: (...) Atzo polizia bat etorri zen.

Mayi: (...)

Gontzal: Gazte bat... Harrigarria da hari solteak zeinen azkar lotu dituzten. Dena zekien geure artekoaz: noiztik gauden harremanetan, zuri egindako dei kopurua... Niri buruzkoak ere denak zekizkien... Emaztea eta biok bereizita gaudela, alaba bat daukadala...

Mayi: Zer gertatu zen?!

Gontzal: (...) Ez duzu sinetsiko. Ikaragarria zen, dagoeneko badakite zuk hil duzula mutila, zantzu guztiek hala erakusten omen dute...

Mayi: Zer gertatu zen?!

Gontzal: Zer gertatu zen? Behin eta berriro saiatu zen ni presionatzen, hilketarekin zerikusia nuela edo zerbaitetan lagundu nizula frogatu nahi zuen... Nik tinko eutsi nion, ordea... Baina, halere etekina atera nahi izan zuen, eta...

Mayi: Eta?!

Gontzal: Bukatu da, ez da berriro agertuko.

Mayi: Zer gertatu zen?

Gontzal: Xantaia egin zidala, putasemeak.

Mayi: (...)

Gontzal: Nire izena kasuan ez agertzearen ordainetan... dirua eskatu zidan.

Mayi: (...)

Gontzal: Tira, doala popatik! Bukatu da dena, ez zaituzte inoiz aurkituko. Elkarrekin alde egingo dugu.

Mayi: Dirua eman zenion? Zenbat eman zenion?

Gontzal: Ze inporta dio? Ahaztu hori. (...) Entzun, Mayi, ez dizut inoiz nire familiari buruz hitz egin. Nola esan... nire familia oso... oso da aberatsa. Ikaragarri aberatsa. Ulertzen duzu? Edozer emateko prest egongo nintzateke gurasoen izen ona ez kakaztearren. Ez duzu gure zaharra ezagutzen. Polizia horrek eraman duena baino askoz gehiago emateko prest nengoen.

Mayi: Zenbat eman zenion?

Gontzal: Zergatik jakin nahi duzu? Ez duzu zertan errudun sentitu, niri bost diruak, ulertzen? Zu ongi egotea nahi dut, besterik ez.

Mayi: Zenbat eman zenion?

Gontzal: 450 mila euro.

Mayik sofan eseri beharra du hankak bat-batean bere pisua eusteko ezgauza direlako.

Gontzal: Kabroi horrek polizia izateari utziko dio, seguru... Enfin, guztion onerako izango al da...

Mayi: *(Ia berekiko)* Eta autoa...?

Gontzal: Zer?

Mayi: Orduan... ez dakite lagundu didazunik?

Gontzal: Ez dakite ezer, eta ez dute ezer jakingo.

Mayi: Ez zekien zure autoa hartu nuenik?

Gontzal: Zerri horri ihes egin zion horrek, diru gose kabroi bat zen. Badakizu zer esan zidan etxetik irten aurretik?

Mayi: (...)

Gontzal: Nire bide berbera jarraituko zuela. Emaztearengandik bereizi egingo zela.

Mayi: Hori esan zizun?

Gontzal: Horixe bera. Ez zuen emazteari xentimo erdirik emateko asmorik, antza. Kabroi putasemea! Ahantz dezagun, doala infernura! (...) Entzun Mayi. Elkarrekin joango gara. Kanpoan biziko gara. Ezagutzen dut leku polit bat. Frantziako ekialdean dagoen herrixka bat, Savoia Goikoan, Suitzatik oso gertu. Han egongo gara guztia lasaitu arte. Gero munduko edozein lekutan biziko gara, aukeratu nahi duzuna: Kalifornia... Ezagutzen duzu Erroma? Edo Buenos Aires bera...

Mayi: Ez...

Gontzal: Zergatik ez, Mayi? Ezin duzu hemen geratu, hemen ez duzu etorkizunik...

Mayi: Joan beharra daukat...

Gontzal: Joan? Nora, ordea? Harrapatu egingo zaituzte. Ez al duzu ulertzen? Hemen ez duzu etorkizunik. Bakarrik gaude zu eta biok.

Mayi: (...) Nirekin alde egiteko prest zaude benetan? Zergatik?

Gontzal: Zergatik? Ez al dakizu? Ezin dut zu gabe lanik egin. (...) Eta maite zaitudalako, Mayi. Ezingo nukeelako zu gabe bizi. Zugatik edozer egingo nukeelako. Ez dakizu zein zoriontsu naizen horretaz jabetu naizelako. Badakit zugatik edozer egiteko gauza naizela. Ez dago munduan zorion handiagorik, beste batengatik edozer egiteko prest egoteak eragindako zorion betea... Sekula ez dut horrelakorik sentitu, baina orain argi asko dakit. (...) Zer diozu?

Mayi: (...)

Gontzal: Badakit ez nauzula maite. Ez dakit, agian aurrerago... Berdin dio. Ez dizut ezer eskatuko.

Mayi: (...)

Gontzal: Esan zerbait, Mayi.

Mayi: (...) Berlin ondo omen dago.

Gontzal: Berlin zoragarria da. Aukera ezin hobea egin duzu: Berlin.

Mayi: Hemen gustura zeundela uste nuen...

Gontzal: Zurekin nengoelako nengoen gustura.

Mayi: (...) Zergatik maitemindu zara nirekin?

Gontzal: Galdera horri hitzez erantzuteko gai banintz, ez nuke egiten dudan lana egingo.

Elkarri begira geratu dira une batez.

Gontzal: Zer orduan?

Mayi: (...) Badakizu? Sekula ez naiz Mauletik haratago joan.

Gontzal: Neuk erakutsiko dizut bidea.

Mayi: (...) Ongi da.

Gontzal: Primeran.

Mayi: (...) Itsasoan bainu bat hartu nahiko nuke joan aurretik. Jendea ikusi dut beheko hondartzatxoan. Itsasoa bare-bare dago, atzo ez zegoen horrela.

Gontzal: Hala da bai. Baretu da sumina.

Mayi: Zer?

Gontzal: Ez dizut aipatu inoiz gure amona zenak umetan...? Behin bere ohera eraman gintuen iloba guztiak. Hala esan zigun: “ez sekula ahaztu gaur esango dizuedana umetxoak. Gizakiok itsasoaren ezpal berekoak gara. Itsasoak bere sumindura baretu beharra du noizean behin. Horrexegatik, irensten ditu marinela gaixoak”.

Mayi: Marinelen bat irentsi zuen atzo itsasoak, ala...?

Gontzal: (...) Bai, segur aski hala izan zen. Baina gaur lasai dago, ez dago arriskurik.

Mayi: Amona bitxia zenuen.

Gontzal: Halakoxea zen, bai.

Gontzalek eskua eskaintzen dio. Mayik heldu dio eskutik. Berriro ere elkarri begiratu diote maitekiro. Lehen entzun dugun abestia jotzen hasten da beste behin. Badoaz biak.

AMAIA